



▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)

▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

## DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN 16. ZINEMALDIA

2018ko apirilaren 20tik 27ra

### FILM LABURREN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

#### GAZTE EPAIMAHAIA

2018ko apirilaren 20tik 27ra bitartean Donostiako Giza Eskubideen 16. Zinemaldia izango da, Donostiako Udalak, Giza Eskubideen Bulegoaren bitartez, eta Donostia Kulturak antolatua.

Giza Eskubideen Zinemaldiak mundu osoan gertatzen diren giza eskubideen urraketekiko, herritarren akzioari eta kontzientzia kritikoiari eta eragin nahi die. Aldi berean lagundu nahi du bizikidetzaren aniztasunean, justizia sozialean elkartasunean, askatasunean eta aukera-berdintasunean oinarritutako gizartearen eraikitzeak.

Aurreko urteetan bezala, Film Laburren Nazioarteko Lehiaketa ere izango da; eta hartara film laburrak, dokumentalak zein fikzio lanak aurkeztuko dira, hainbat herritatik eta nazioarteko zinemaldi ospetsuetatik etorriak.

**Gazte Epaimahaiaren** ardura izango da lehiara aurkeztutako film labur guztiak ebaztea, giza eskubideen gaineko sentsibilizazioa eta zinemagintzaren kalitatea kontuan izanik. Gazte Epaimahaiak film laburrik onenari 3.000 euroko saria emango dio.

Epaimahaiakide aritzeak **UPV/EHU** Gipuzkoako Campuseko ikasle guztiak eta **Mondragon Unibertsitateko** Ikusentzuneko graduiko ikasleek **ECTS bat** lortzeko aukera izango dute. **Deustuko Unibertsitateko** ikasleek, berriz, **bi ECTS**.

#### IZEN-EMATEA

Izena emateko epea **2018ko apirilaren 8an** amaituko da.

Izen-ematea on-line egingo da helbide elektronikoan: [www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus)

Behin epea amaiturik, **apirilaren 9an** zozketa egingo da eta memento horretan izena eman duten guztiak [www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) webgunearen bidez epaimahaiaren parte hartzeko aukera duten ala itzarotzerrendan aurkitzen diren ikusi ahal izango dute. Baieztapenak web horren bidez eman beharko dira.

Epaimahaiak gizonen eta emakumeen arteko ordezkariak orekatua izango du.

#### GAZTE EPAIMAHAIKIDE IZATEKO BALDINTZAK

- **18 eta 30 urte** bitartean izatea Zinemaldia garatzen den unean.
- Zinemaldia ofizialki hasi baino lehen\*, **saio trinko batera joatea** ezinbestekoa izango zaie. Egun horretan, lehiaren film labur gehienak proiektatu eta bozkatuko dira, hau da, 16:30erako eta 22:30erako saioetakoak. Parte hartze **azalpenak ere emango dira eta behin betiko izena emateko unea izango da**. Hau da, agertzerik ez duten pertsonak epaimahaiakide izateko eskubidea galduko dute. Saioak, gutxi gorabehera, 3,5 orduko iraupena izango du (film laburren iraupenaren arabera).
- **Apirilaren 20tik 26ra bitarte, Victoria Eugenia antzokian, 19:00etan izango diren saioetara agertu, lehiaketako film laburra eta luzea ikusi eta geroko solasaldian egotea ezinbestekoa da**. Saio bakoitzak 3 orduko iraupena du gutxi gorabehera (film laburra, film luzea eta solasaldia). Saioaren amaieran, hautetsontzia jarriko da, film laburren botoak emateko. Nahitaezkoa da bozkatzea eta izena jartzea.

- ▶ Giza Eskubideak / Derechos Humanos / Human Rights  
Tel. +34 943 481 975 | [zinema\\_gizaeskubideak@donostia.eus](mailto:zinema_gizaeskubideak@donostia.eus)
- ▶ Zine Unitatea / Unidad de Cine / Film Unit  
Tel. +34 943 481 157 | [cinema\\_cinema@donostia.eus](mailto:cinema_cinema@donostia.eus)

[www.zinemaetagizaeskubideak.eus](http://www.zinemaetagizaeskubideak.eus) | [www.cineyderechoshumanos.eus](http://www.cineyderechoshumanos.eus)

- Epaimahaikideek, gutxienik jota, 19:00etako **saioen % 80-etara joan beharko dute**. Bestela, ez dute behean aipatzen diren kontraprestaziorik jasoko, ezta zozketan parte hartuko edota hurrengo zinemaldietan epaimahaikide izango ere.
- Zinemaldian **bestelako jarduera osagarriak** —hitzaldiak, bisita gidatuak, lantegiak edo mahai inguruak — ere programatu daitezke, eta halakoak ere **baliagarriak izan daitezke aukera libreko kreditu gehiago lortzeko**.
- Gazte Epaimahaiko kide moduan parte hartzeko konpromisoak oinarri hauek oso-osorik onartzea dakar.

### EPAIMAHAIKIDEEN ESKUBIDEAK:

- Zinemaldiko antolatzaileek egindako **diploma** eta **ziurtagiri** bat jasotzea, egindako jarduera eta hartan emandako orduak adieraztekoa. Gerora, UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko, Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko komunikazioko eta Deustuko Unibertsitateko ikasleek beraien unibertsitateetan dagozkien ECTS-en aitortpena eska dezakete.
- **Doan** ikusi ahal izatea Giza Eskubideen 16. Zinemaldiko 19:00etako saio guztiak, eta 16:30erako eta 22:30erako saioetarako bina sarrera eskuratzea.
- Donostiako Giza Eskubideen 16. Zinemaldiko **katalogoa eta programa** eskuratzea.
- Bi abonua eskuratzea 2018ko Fantasiatzko eta Beldurrezko 29. Zinema Asteak Victoria Eugenia Antzokian egingo dituen saioetarako.
- Dajlan (Aljeria) errefuxiatu saharar kanpamentuan izango den 2019ko **FISAHARA**ko, Saharako Zinemaldirako bi bidaien zozketan parte hartu. Zozketan aukeratutako kideek beraien bizipenen txostena egin beharko dute. Gainera, baimena eman beharko dute, horrela erabakitzen bada, argitaratu ahal izateko zinemaldiko eta Donostiako Udaleko web orrian. Baita euren irudiaren argazkia ere.

\* *Aukeraturiko epaimahaikideei Zinemaldi aurreko bilkura noiz izango den adieraziko diete.*